

# GALIZIAKO DEKLARAZIOA



Comité Europeo  
de las Regiones

Europako Eskualdeetako Komitearen Espainiako  
ordezkaritzak 2028-2034 Urte Anitzeko Finantza  
Esparruaren proposamenari buruzko jarrera

Alfonso Rueda Valenzuelaren presidentetzapean,  
Galiziako Xuntako presidentea

*Santiago de Compostela, 2025eko urria*

Espainiak Eskualdeetako Europako Komitean duen ordezkariak 21 kidek osatzen dute, (autonomia-erkidegoen eta tokiko enteen ordezkari gisa), eta ordezkariak horrek bere **gaitzespena adierazten** du Europako Batzordeak 2028–2034 Urte Anitzeko Finantza Esparrurako egindako proposamenaren<sup>1</sup> aurrean, eta, bereziki, nazio- eta eskualde-lankidetzako planak izenekoen sorreraren aurrean.

Estatu kide bakoitzeko plan bakarretan kohesioa, nekazaritza eta arrantza, enplegua eta gizarteratzea, etxebizitza edo segurtasuna eta defentsa bezalako politika askotara bideratutako baliabide mugatuak biltzen direnez, lehentasun estrategikoen artean baliabideak esleitzeko dilema bat planteatzen da, planen inguruko adostasuna arriskuan jar dezakeena eta, ondorioz, haien eraginkortasuna murriztu dezakeena. Gainera, ikuspegi horrek **erabakiak** estatu kideetan **zentralizatzeko** bidea ematen du, haien berezko eskumen-antolaketaren kaltetan; **gardentasuna kentzen dio baliabideen lurralde-banaketari**, eta **ahuldu** egiten du **eskualdeek** gastu-lehentasunen definizioan duten zeregina. Horrek guztiak kolokan jar lezake Batasunaren kohesio-printzipioa eta garapen orekatua.

Horregatik guztiagatik, **Europako Eskualdeetako Komiteak** urriaren 15ean **egindako deia** berretsi du, nazio- eta eskualde-lankidetzako planen funtsari buruzko proposamena berrikusteko, eta bereziki Espainiako Gobernuari dei egin dio jarrera hori Kontseiluan defenda dezan.

## Aurrekontuaren tamaina

- 1 | Europako Batzordeak aurrekontu komunitarioa indartzeko eta eraginkorrago bihurtzeko egindako ahaleginak aitortzen ditu, baina kexu da haren **anbizio-faltagatik**, EBko Errenta Nazional Gordinaren % 2tik beherako proposamena aurkeztu baitu (gainerako administrazio publikoen aurrekontuen pisu erlatiboa baino askoz txikiagoa).
- 2 | Beraz, eskatzen du Batasunak **egungo erronka geopolitiko garrantzitsuei aurre egiteko finantza-baliabide nahikoak eskuratu ditzala, baita Tratatuaren helburuak betetzeko ere**, hala nola ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioaren, nekazaritzaren eta arrantzaren arloetakoak.
- 3 | Kexu da **Batzordearen, Estatuaren eta eskualdeen artean modu partekatuan kudeatutako funtsen proportzioa Batzordeak zuzenean kudeatutako alde murrizten ari dela<sup>2</sup>, eta aurrekontua berrerekatzeko eskatzen du, lehenengoak indartzeko**. Funtsen kudeaketa partekatuak oso positiboa dela erakutsi du, eta ahalbidetu du ikuspegi hurbilagoak eta lurraldeen beharretara egokituagoak hartzea. Hori bereziki garrantzitsua da kohesiora, nekazaritzara eta arrantzara bideratutako funtsetan, politika horiek modu erabakigarrian laguntzen baitute Batasunaren lehiakortasunean eta autonomia estrategikoan.

## Kohesioa

- 4 | Gogorazi du ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa dela Europar Batasunaren helburuetako bat, Tratatuaren aitortua. Lurraldeen arteko desorekak zuzenduta, funtsak jasotzen dituzten eskualdeei mesede egiteaz gain, Europako merkatu bakarra indartzen da, guztientzako aukerak zabaltzen baititu eta gizarteratzea bultzatzen baitu.
- 5 | **Kohesiorako aurrekontu espezifiko, bereizi eta nahikoa eskatzen du**, baita eskualdeen garapen-mailen arteko aldeak murriztea helburu izango duen estatu kideen eta eskualdeen arteko banaketa-sistema bat ere. Europa kohesionatu batek bakarrik erantzun diezaike egungo erronka geopolitikoak, eta Batasunaren barruan demokrazia eta lehiakortasuna indartzen laguntzeaz gainera.
- 6 | Gutxien garatutako eskualdeei zuzendutako finantzaketa minimoa txalotzen du, baina **eskualde guztientzako kohesio-politika** bat aldarrikatzen du. Egungo proposamenak ez die babes nahikorik ziurtatzen eskualde-kategoria guztiei, ezta EBFT – Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuaren 174. artikulua araberako desabantaila geografikoak dituztenei ere. Epe luzera, horrek lurraldeen arteko desberdintasun gehiago eragin ditzake.

<sup>1</sup>“EBren aurrekontu dinamiko bat etorkizuneko lehentasunetarako: 2028–2034 urte anitzeko finantza-esparrua” komunikazioa eta 2028–2034 aldirako Ekonomia, Gizarte eta Lurralde Kohesiorako, Nekazaritza eta Landa Eremuetarako, Arrantza eta Itsasorako, Oparotasunerako eta Segurtasunerako Europako Funtsa ezartzen duen erregelamendu-proposamena.

<sup>2</sup>Murrizketa hori 21-27 aldian % 65 izatetik 28-34 aldian % 45 izatera igaroko litzateke, NextGenerationEUren funtsak kontuan hartu gabe ere.

- 7 | Kontuan hartzen du **eskualde ultraperiferikoen** berariazko aipamena, baina kexu da haien espezifikotasuna Europaren esparrutik esparru nazionalera aldatu dela, alde batera utzita EBFTaren 349. artikuluan aitortutako europar politika espezifikoen beharra eta Europako zuzenbidearen ondarea.
- 8 | Orain formulatuta dauden bezala, nazio- eta eskualde-lankidetzako plan horiek lurraldeen arteko eta esku hartzeko arloen arteko lehia handia ekarriko lukete. Horregatik, eskatzen du **maila komunitarioan aurrez zehaztutako eskualde-esleipeneko irizpide objektibo, argi eta zehatzak** ezartzea, eta irizpide horiek estatuekin eta eskualdeekin argi eta garbi negoziatzea.
- 9 | Ohartarazten du **lehiakortasunak ez duela lankidetzak-planetatik kanpo egon behar**. Kohesio-funtsek oinarritzko zeregina izan dute eskualdeetako berrikuntza-ekosistemen garapenean, bereziki espezializazio adimenduneko estrategien diseinutik eta aplikaziotik abiatuta. Kexu da horiek ia planik ez izatea eta berrikuntzarako eskualde arteko inbertsioek aurrekontu espezifikorik ez izatea. Era berean, kexu da industria-trantsizioak eragindako eremuetako bidezko trantsizio-mekanismoen aipamenik egin ez dela.
- 10 | Eskertzen du **lurralde- eta hiri-garapen integratuko estrategiak eta partaidetzako tokiko garapena** berariaz aitortzea, baina bientzako esleipen espezifikoko baten falta sumatu du, kontuan izanik horrek duen garrantzia funtsezko erronkei aurre egiteko, hala nola etxebizitzari, klima aldaketara egokitzeari edo hirigune, landa eta kostaldeko despoblazioari. Tresna horiek erakutsi dute eragin positiboak dituztela langabezia murrizteko, konektibitate digitala hobetzeko edo enpresa- eta ekintzaile-sarea indartzeko, batez ere desabantaila natural edo demografiko larriak eta iraunkorrak dituzten eremuetan.
- 11 | Positiboki baloratzen du Europar Batasunaren **mugaz gaindiko, eskualdeen arteko eta nazioz gaindiko lankidetzak-programek** Europa eraikitzeke egiten duten ekarpena. Eskualdeek programa horietan duten funtsezko egitekoa aldarrikatzen du, eta Estatuaren zentralizazio-prozesuek haien gobernantzan eraginik ez izatea eskatzen du.

## Nekazaritza eta arrantza

- 12 | Gogorarazten du nekazaritzak eta arrantzak ekarpen handia egiten dutela EBko elikagaien segurtasunean eta landa-eremuetan biztanleria finkatzean. Beraz, azpimarratzen du **bi sektore horien bideragarritasuna bermatzeko** beharra.
- 13 | Horregatik, kezka adierazten du **NPB – nekazaritza-politika bateratua eta APB – arrantza-politika bateratua bideratutako finantzaketa murriztu egin delako termino errealetan**. Uste du aurrekontu komunitarioak ez liokeela EBren politika eskusibo horiek babesteari utzi behar, politika horiek tokian bertan inplementatzeak kostu esanguratsuak dakartza eta.
- 14 | NPBeari dagokionez, salatzen du murriztu egiten dela errentarako laguntzetarako eta merkatuen erregulaziorako berariazko aurrekontua, neurri berriak txertatzeaz gain, eta ez dela aurreikusten, berriz, landa-garapenerako esleipen espezifikorik, eta horrek "lehiatu" egin beharko duela esku hartzeko gainerako arloekin nazio- eta eskualde-lankidetzako planen barruan.
- 15 | Ohartarazten du egungo NPEan Europar Batasuneko funtsek % 100ean finantzatzen dituzten zenbait neurriren **kofinantzaketa nazionala** sartu dela. Horrek ekarriko luke Espainiako administrazioek ahalegin handiagoa egitea NPEa tokian bertan aplikatzeko garaian.
- 16 | Kexu da **kudeaketa partekatuan arrantzara, akuikulturara eta Batasunaren itsas politikara bideratutako baliabideak nabarmen murrizten direla**. Erreklamatzeko du arrantza-politika erkidearen esparruan EBk behar diren baliabideak bideratzea itsasoko baliabide biologikoak kontserbatzeko, hori bere eskumen eskusiboetako bat baita.
- 17 | Azpimarratzen du **itsas esparruko finantzaketa komunitarioak oreka bat islatu behar duela APEaren jasangarritasunaren hiru zutabeen artean** (ingurumenekoa, ekonomikoa eta soziala), eta **flotaren lehiakortasuna babestu** behar duela deskarbonizazioaren, jasangarritasunaren, digitalizazioaren, kontrolaren eta trazabilitatearen erronketara egokitzeke.

## Gobernantza

- 18** Kezka handiz ohartarazten du plan horiek abian jartzeak ekarriko lukeela **baliabideak maila nazionalean zentralizatuago kudeatzea**, eta **zeregin hori funtsezkoa izango litzatekeela agintari publiko guztientzat**. Izan ere, horrek ez du bermatzen juridikoki eskualdeetako eta tokiko agintarien parte-hartzea, ez lehentasunak zehaztean, ez horiek gauzatzean. **Elkartzearen printzipioak ez du frogatu maila anitzeko gobernantzaren bermatzailea denik**, eta Espainian ez du ziurtatu eskualdeko eta tokiko administrazio guztien benetako parte-hartzea kohesio-funts guztien programazioan. Beraz, parte-hartze hori ziurtatzea eskatzen du.
- 19** Ohartarazten du kudeaketa-funts guztiak Estatu bakoitzeko plan bakar batean bateratzeak **lurraldeen beharrak bertan behera uztea** ekar dezakeela. Espainian, bateratze horrek ekarriko luke funtsen egungo 50 programa<sup>3</sup> ingurutik (gehienak maila autonomikoan diseinatu eta egikarituak) estatu kideen mailan diseinatutako bakar bat izatera igaroko ginatekeela. Maila nazionalean gehiago zentralizatutako kudeaketak ez dakar sinplifikazio handiagorik, ez administrazioentzat, ez herritarrentzat.
- 20** Gogorarazten du autonomia-erkidegoek **esperientzia** sendoa dutela **funtsak diseinatzen eta kudeatzen**, estrategia propioen garapenak bermatuta, horiek lurraldearen ezagutza sakona eta epe luzera bideratutako ikuspegia ematen baitiete. Gainera, jarduketan baterako finantzaketaren arduradunak dira, baita erreformak ezartzearen arduradunak ere.
- 21** **Beharrezko aurrekontu-malgutasunari** dagokionez, ohartarazten du ustekabeko krisietarako % 25 gordetzea gehiegizkoa dela, eta horiek programatzeak ez duela inola ere estatu kideen eta Europako Batzordearen esku soilik geratu behar.

## Erreformak

- 22** Adierazten du **Europako seihilekoaren esparruan Espainiari emandako gomendioen kopuru handi bat autonomia-erkidegoek eta tokiko administrazioek eskumen garrantzitsuak —esklusiboak, kasuren batean— dituzten arloei buruzkoa dela**, hala nola uraren kudeaketari, etxebizitzari edo gizarteratzeari buruzkoa.
- 23** Funtsak jasotzearen eta gomendio horietatik eratorritako erreformen arteko baldintzazkotasunean beste urrats bat egiteko, **lurralde-agintaritza publikoek parte hartu beharko lukete (eta ez soilik kontsultatuak izan)** egoera-txosten nazionalak eta herrialde bakoitzerako gomendio espezifikoak egiten, Europako seihilekoaren esparruan, bereziki eskumen-esparru propioei eragiten dieten gomendioei dagokienez.
- 24** Nolanahi ere, eskatzen du **eskualde-esleipenak** konprometituta ez egotea maila nazionalean soilik erabakitako erreformen betetze-mailagatik.

## Lurralde-lankidetzarako esparru berria, Europako funtsen kudeaketa eraginkorrago eta ekitatiboagoa lortzeko

- 25** Europako funtsen diseinuan, gauzatzean eta banaketan lurralde-beharrak erabat kontuan hartzen direla bermatzeko, EBren 2028-2034 Urte Anitzeko Finantza Esparruari eskatzen diogun egitura berrian, Europako Eskualdeetako Komiteko Espainiako ordezkariak proposamen hauek egin ditu:
- a) Autonomia-erkidegoek beren eskumeneko eremuetan kudeaketa-agintaritza gisa duten eginkizuna aitortzea, toki-administrazioekin lankidetzara estua sustatuta.
  - b) Lurralde- eta hiri-garapen integraturako funts espezifikoak eustea, kohesiora, jasangarritasunera eta lehiakortasunera bideratutako tokiko estrategiak bultzatzen jarraitu ahal izateko.
  - c) Gaur egungo konferentzia sektorialen sistema baino arinagoak, efikazagoak eta egonkorragoak izango diren gobernu-mailen arteko koordinazio- eta lankidetzara-egiturak bultzatzea.

<sup>3</sup>19 EGEF eta 19 eskualdeko EGF, 1 EGEF eta 4 eskualde anitzeko EGF, 1 IAAEF, 1 NPEPE, 1 KGF, 1 BTF.